

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

61/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Arabako Mahastiak / Viñedos de Álava Jatorri Deitura Babestua abian jartzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

61/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Arabako Mahastiak / Viñedos de Álava Jatorri Deitura Babestua abian jartzeari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dute Arabako Errioxako 40 upategik Arabako mahastiak / Viñedos de Álava Jatorri Deitura Babestua sortzeko hartu duten erabakia, uste dutelako hala bultzatu egiten dela Arabako mahastizaintza eta ardogintzaren sektorearen etorkizuna bermatzen duen eredu bat; hain zuzen ere historikoki lurraldeari lotuak diren eta kalitate bikaineko produktua sortzen duten upategi txiki eta ertainek osatutako eredu.

2. Arabako Batzar Nagusiek Foru Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete ezen, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, babesa eman diezaiotela upategi horiek hartutako bideari eta erraztu dezatela beren lege eta giza baliabideekin marka hori errealitate bat izatea ahalik eta lasterren.

3. Arabako Batzar Nagusiek eskatzen dute bultzatu dadila ardoaren mahai bat, deitura berriaren garapen egokirako. Mahai hori osatuko dute inplikaturako upategietako ordezkariak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, behar diren ahalegin tekniko eta legal guztiak koordinatze aldera.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete lanean jarraitu dezala Rioja Jatorri Deituraren barruan geratu nahi duten upategiek berezko deitura lortu ahal izan dezaten, Arabako Errioxa gisa ezberdindua, zeinak erantzuna emango baitie gure eskualdeko berezitasun geografiko, topografiko, paisajistiko eta agronomikoei.

5. Arabako Batzar Nagusiek Foru Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete babestu eta defendatu ditzatela Arabako Errioxako ardogileak eta upategiak, edozein dela ere hautatzen duten aukera, betiere lehentasuna emanez kalitatearen defentsari, ezberdintzeari, Arabako Errioxako berezko ekoizpen-ereduari eta jasangarritasun ekonomikoari, sozialari zein ingurumenekoari.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 19a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA